

“Nire matxinada da, objektuen mugimenduan fokua jartzea, eta, beraz, kultura kritikoa aldarrikatzea”

Itziar González Virósekin solasean



Ianire de Andres Olabarria
Arkitektoa eta Aldiri aldizkariko kidea

Elkarrizketa data: 2017-12-08
Onartze data: 2018-05-04

Itziar González Virósek (Bartzelona, 1967) Bartzelonako Goi Eskola Teknikoan egin zituen Arkitekturako ikasketak. Ibilbide profesionala hasi orduko, zin hipokratikoa egin zuen: ez zuela sekula obra berririk diseinatu. Geroztik, aktibistatzat jotzen du bere burua, eta eraldaketa sozialaren inguruan jardun du hirigintzatik, batez ere. 2007tik 2010era Bartzelonako Ciutat Vella barrutiaren errejidorea izan zen, baina kargua utzi zuen ustelkeria-kasu bat salatzeko. Parlament Ciutadà egitasmoaren sustatzailea da eta *Institut Cartogràfic de la ReVolta*ren sortzaileetako bat. 2017ko ekainean Bartzelonako Ranblen birmoldaketa egiteko txapelketa irabazi zuen Km-ZERO lantaldearekin, eta gaur egun horretan ari da buru-belarri. Arkitektura eta hirigintza diziplinen inguruko inspirazio-iturri agorrezina denez, berarengana jo dugu kanpoko ikuspegia eman diezaion begirada anitzez jositako bilduma honi.

Aldiri: *Topaketak eta kartografia. Zein da haien lekua zuk aldarrikatzen duzun matxinadan?*

Itziar: *Hasteko, azaldu nahi nuke zergatik aldarrikatu matxinada eta ez iraultza. Beti pentsatu izan dut iraultza hasiera eta bukaera dituen zikloa dela, egoera berri zehatz bat lortzeko sortzen den uneko mugimendua. Aldiz, matxinadaren emaitza ez da estatikoa, helburua bera baita mugitzea, aldatzea, etengabe kritikan mantentzea. Horrela, matxinadak topaketak berez sortzen ditu; izan ere, gorputzak etengabe lekualdatzen direnean bakarrik aurkitu eta elkartu daitezke.*

Kartografiaren papera bestelakoa da: beti esaten dugu mapa egiten duenak mundua egiten duela. Lurraldea marrazten duenak irudi hori finkatu eta boterea bereganatzen du. Gure proposamena da herritarrek euren ikuspegiaren arabera marraztea bizi diren lurraldea, ziur gaudelako boteredun instituzioek marrazten dutenaren aldean ezberdina izango dela. Adibidez, Ciutat Vellako (Bartzelona) instituzioek auzoak, etxebizitza-egiturak eta jendearen bizimodua marraztu beharrean, monumentuak eta eraikin interesgarriak irudikatzen badituzte, politikak ere amu horietatik etekinak ateratzeko bideratuko dituzte. Eta industria turistiko erazleak mapa horrekin finkatuko du negozioaren estrategia, non gainerako etxebizitza-egitura guztia jarriko duen monumentuak ikustera datozenek behar dituzten ostalaritza-zerbitzuen menpe. Aldiz, udalak eskolak, kulturetxeak, mahai-inguruak egiten dituzten tabernak, eta abar marraztu balitu, orain, Ciutat Vella beste egoera batetan egongo litzateke, adibidez, Berlinen bezala, prezio duineko etxebizitzak eskaintzen, gertuko azpiegiturak bermatzen, eta abar. Horrela, pertsonak egongo lirateke plangintzaren zentroan, eta ez objektuak.

Norberaren mapa marraztea subiranotasun-ekimen garrantzitsua da, horregatik, Institut Cartogràfic de la Revolta-n egiten genituen tallerretako partaideei tresnak eman genizkien lurraldea euren interesen arabera marraztu eta plangintzako mapekin alderatu zezaten.

A: *Aurtengo eta iazko «Hiria eta Bestelako Politikak» jardunaldiek (Tabakalera) boterearen eragina dute aztergai. Arkitekturatik indarkeriaz aritzen gara?*

I: *Bai, izan ere, hirigintzan erabakitzen dugunean esparru bat gune berdea izango dela, berez positiboa beharko luke, baina eremu hori marrazten dugunean, benetan esaten duguna da: hor dauden etxeak orain ez dira ezer, izango direna*



Irudiaren egilea - Laura Maioz

interesatzen zaigulako bakarrik. Eta lur-eremu hori kaltetuta gelditzen da; basakeria hutsa da. Beraz, aitortu beharra dago gure diziplinan indarkeriaz jarduten dugula lurraldea antolatzerakoan. Eta gutxienez onartzen dugu, bizilagun horiek kaltetuta daudela diogunean. Oso esanguratsua da hitza bera¹.

Forat de la Vergonya-n (Bartzelonako plaza baten goitizena) gertatu zen, adibidez. Plaza egiteko eraikinak bota zituzten, baina dirua lortu arte, ez zen urbanizatu, zementu hutsean utzi zuten. Behin zuloa egin zutenean, bizilagunak erabiltzen hasi ziren, eta azkenean urbanizatu nahi izan zutenean istiluak egon ziren, administrazioetik ez baitzuten ulertu dagoeneko auzokoei sortutako plaza zela, eta ez zuten nahi izan dagoeneko zuen itxura mantendu. Hor hasi zen instituzioen eta planeamenduen aurkako kritika interesgarria.

A: Zein da zure matxinada? Zer bilatzen duzu matxinadan?

I: Nire matxinada da, hain zuzen, objektuen mugimenduan fokua jartzea, ezegonkortasun iraunkorraren onurak balioan jartzea, eta, beraz, kultura kritikoa aldarrikatzea. Aktibista, zinegotzi zein irakasle lanetan, konturatu naiz ez dugula helburutzat kultura kritikoa barneratzea, eta nik faltan bota dut. Ez dut uste ez Espainian ezta Europan ere kultura demokratikorik dugunik, ez direlako sustatu errealtatearen irakurketa garbi, anitz eta osagarriak egiteko tresnak. Ez dugu tresnarik zer gertatzen ari den galdetzeko, ezta jazotzen ari dena era kritikoa, eta, beraz, subiranoan, interpretatzeko eta iritzia eraikitzeke. Kontua da, kultura kritiko hori ez praktikatzeko egoera ahulean uzten gaituela. Jendea beldurtuta eta geldirik dago; uste dut hori zela boteredunen «plana».

Nik, ordea, etengabeko lekualdatzea bilatzen dut, eta horretarako tresna boteretsuena enpatia da. Ni zure tokian jartzen naizen momentuan sekulako desplazamendua sortuko da: autokritika egitera behartuta sentituko naiz eta egoera eraldatzeko gogoia izango dut.

Horregatik, nire ametsa da lurraldeko gorputz guztiak

¹ Gaztelaniazko 'zona afectada' hitz teknikoari buruz ari da elkarrizketatua.

politizatzea eta haien mugimenduak beta programazio baten bitartez kudeatzea. Alegia, Administrazio Publikoan (paradigma berria, agian, Administrazio Kolektiboa izendatu genezakeen), eta zehazki, hirigintzan, lurraldea lantzeko eta planifikatzeko tresna dinamikoak sortzea, zientzian bezala, probak eta akatsak onartzen dituen sistema malgua eraikitzeke.

Horretan ari nintzen Bartzelonako Udalean Erabileren Plana berreskuratu nuenean. Orduan, Ciutat Vellan baimentzen ziren eta ez ziren ekintzak zerrendatzeko eta zehazteko balio izan zuten, Plan Orokorren osagarri gisa, eta gaur egun, hiriko auzo eta distritu guztiek erabiltzen duten tresna da. Pragan ere aurkeztu nuen eta martxan jartzekoak dira. Orain, Ranbletan ere ardura berbera daukagu: egitura fisikoa zehaztu beharko dugu, baina ezingo dugu finkatu leku bakoitzean zer gertatuko den, ezingo diogu kolektibo eta ekintza bakoitzari toki zehatza egokitu, kalean matxinada konstantea delako. Interesgarria da iraunkortasuna definitzea guztia aldakorra dela kontuan izanda. Arazoa da administrazioek definizio zehatzak eskatzen dituztela; sistemak berak ez dituela onartzen behaketa, enpatia, esperimentazioa, proposamenak, ausardia edo arriskua bera.

A: Baliteke zuk proposatzen duzuna administrazioak kontrolik gabeko diseinutzat jotzea. Nola kudeatuko litzateke?

I: Bai, noski, eta horretan dago gakoa: instituzio-terapia egin beharra dago, horrela deitzen diot nik. Instituzioek, administrazioek zein herritarrez osatutako kolektiboek, eraldaketa sakona egin beharko lukete, krisia jasan, etengabe berrizatzeko. Dagoeneko baditugu tresna teknologiko baliagarriak beta programazioan era kolektiboan sortzeko; lortu behar duguna da instituzio guztiak dinamika horretan barneratzea, norabidea uneoro zuzentzeko.

Zentzu horretan, kontrola ez litzateke izango dena maila berdinean finkatzea, baizik eta monitorizazio bat, eraldaketaren jarraipen bat. Zientzialariek natura biziduna behatzen duten moduan, zergatik ez hiria ere bizidun prozesutzat jo?



Irudia - Km_ZERO lan-taldea
Egilea - Laura Maioz

A: Orduan, boterea partekatzen prest dagoen jendea beharko genuke administrazioan?

I: Elkarlanean aritzeko prest dagoen jendea beharko litzateke. Ranblen proiektuan ari garen lantaldean, adibidez, «partehartze» hitza alde batera uztea erabaki dugu, haratago goazelako: lortu nahi duguna hiritarren kooperazioa da. Hau da, agente guztiak plano berean jarri nahi ditugu elkarlanean: administrazioko langileak (politikari zein teknikariak), hiritar adituak (aktibistak, unibertsitateko irakasleak, profesionalak, etab.), auzotarrak (lurraldean etekinak dituzten eta ez dituzten hiritarrak) eta bitartekariak (talde idazlea). Begirada osoa lortzeko pieza guztiak dira beharrezkoa, beraz, ez da partaidetza izango, elkarlana baizik.

A: «Elkar-sorkuntza»?

I: Bai, erabat ados. Batzuetan, elkar-ekoizpena ere deitu izan zaio, baina ez da hain aproposa, ekoiztea baino hausnarketarako guneak sortzea baita asmoa; eztabaidaguneak. Ekoizpenean helburu zehatza dago, aldiz, sorkuntzan prozesua bera da interesgarria.

A: Elkar-ekoizpenaren ordean elkar-sorkuntza deitzea hirigintzari ekarpen feminista egitea litzateke?

I: Noski. Nire ustez, feminismo ugari daude, baina egia da praktika guztiak aldarrikatzen dutela emakumeen kolektiboaren ekarpenak beharrezkoak direla, eragiteko gaitasuna dugula, nahiz eta jendartearen erdia izanik orain arte ukatu egin zaigun. Eta praktika feministek eta transfeministek ekarpen hori egin dute: edozein kolektibok, txikienak ere, eragiteko eskubidea duela. Talde gutxituen aldeko aldarria egin dute, eta, batez ere, eredu patriarkala auzian jarri dute. Eredu baztertzailer eta parametrizatzaileari alternatiba bilatzea da kontua, agente guztiak barneratzen dituen jendarte sortzeko.

A: Aldiriren ekarpenean lokalitatea eta unibertsaltasuna uztartzen saiatzen gara. Nola kudeatzen da hori espazioak diseinatzean? Ranblen proiektuan mahai gainean dagoen kontua da?

I: Bai, noski, horregatik deitzen da taldea Km_ZERO. Hau da nire teoria: bi norabidetan hazi gaitzake, puntu batetik bestera zuzenean doan plano horizontalean, edo sustraieratik hasi eta adaburuan barrena zabaldu plano bertikalean. Alegia, bi eredu ditugu: horizontala litzateke globalizazioarena, sistema bera etengabe errepikatzen duen eredu estentsiboa eta zapaltzailea. Modu bertikalean, aldiz, lur-eremu txikia okupatuta, espazio aberasgarriagoa sortuko dugu: lehenengo sustraierara joko dugulako, oinarriaren behaketa sakona eginez, eta hor aurkituko ditugu beste lurralde batzuekiko berdintasunak, sakontasunean arazoak bertsuak direlako. Behin arazoak ulertuta, gora egin eta zabal gaitzake, lurraldearen eskakizunei konponbide zehatza emateko.

Ranblen txapelketa unibertsala izan zen, baina gure ustez, 6 hilabetetan ez zegoen eredu berri bat sortzeko astirik, aurretik lurraldea ezagutzen ez bazen. Aurreko ezagutzarik gabe, konponbidea beste eredu bat errepikatzea izango zen seguru.

A: Proposamena lantzerakoan, erreferentziak bilatu dituzue beste eredu batzuetan?

I: Galdera hori sarritan egin digute, eta erantzuna ezezko borobila da. Gure benetako grina da Ranblen eredu propioa sortzea. Urteak daramatzagu hirigintzan lanean eta bidean proposamen asko miretsi ditugu, azkenaldian, batez ere, belaunaldi berrien ekarpenak, gure lanbidearen inguruko kultura kritikoa barneratuta duzuelako dagoeneko. Beraz, Ranblen lortuak orain arte miretsitako lanen ondorioa izango dira, aspaldi onartu genuelako praktikak aldatu behar zirela.

A: Zenbaki honetan jasotako hainbat ikerketa ondare arkitektonikoaren ingurukoak dira; badirudi hura berreskuratu eta balioan jartzeko ardura eta nahia daudela. Uste duzu aldaketa bat sortzen ari dela ala belaunaldi guztiak betidanik izan duten ardura dela?

Nik uste dut sentimen berezia dagoela orain. Ikasketak bukatu nituenean Bartzelona Olinpikoaren garaia zen, eta nire ikaskideak irakasleen estudioetako langileak ziren, lanez

lepo baitzeuden. Nik zin hipokratiko hura egin nuen (ez nuela obra berririk sekula diseinatu) bi esparru desberdinu nituelako: arkitektura da gauza bat, eta eraikuntzaren industria, beste bat. Aldo Rossik zioen arkitektura dela bizitzaren agertokia, eta nik hala ulertzen nuen, arkitektura politika, pertsona, ekonomia, lan eta abarren ondorio gisa. Higiezinen burbuilak eta osteko krisiak egoera jasangaitza sortu dute eta hirirako eskubideak nola urratu diren bistan geratu da. Horrek, belaunaldi berriengan kontzientzia sorrarazi du: bat-batean arkitekturaren hutsunea nabaritzen hasi dira eta berreskuratzeko oinarrietara jotzen dute, hain zuzen, arkitekturaren testuinguruan, eta ez merkatuaren esanetara, sortutako oinarrietara. Egia da alde zahar asko burgesiaren eskuetan eraikiak izan zirela, boteredunek sustatuta, alegia, baina eraiki zituzten agenteak elkarlanean ari ziren, ez ziren industriaren eraginez sortu. Ondare pieza horietatik ikas daiteke inguruarekiko errespetua, logika eta koherentzia... gure diziplinaren egiazko tresnak somatzen dira, eta eskertzekoa da.

Gainera, eraikin iraunkorrak dira, ustez zuhaitza bezain estatikoak izan arren, mendez mende erabilera berriak jaso dituzten izateak. Zuhaitzak urtaro berrietara moldatzen diren bezalaxe, eraikuntza zahar horiek ere ondo sustraituta daude eta aro berrietara moldatzeko gaitasuna adierazi dute. Hau guztia baloratzen dakite belaunaldi berriek eta niretzat positiboa da, sintoma ona.

A: Zuk hainbeste aldarrikatzen duzun artisautzara bueltatzen ari garela esan genezake orduan?

I: Noski, izan ere, artisauen lana oso interesgarria da, garrantzitsuena ez delako zenbat denbora behar den ekoizpenean, baizik eta ondo egina dagoen edo ez. Eskuzabaltasun ikaragarria dago jardun horretan, eta nork baloratzen du? Hor dago autokritika gordina, matxinada. Aspektu txikienei ere garrantzi osoa ematea eta fokua bertan jartzea, berriz ere, feminismoak defendatzen duena: ezer ez inor ez da huskeria, denak axola du, inork ez duelako botere nahikoa erabakitzeko zer den esanguratsua eta zer ez. Ezbairik gabe, artisauak gauzen ordena ezberdin bat aldarrikatzen du.

A: Bukatzeko, kontu iezaguzu Ranblen proiektuan zertan zabilatzaten.

I: Proiektu honen alde interesgarriena zera da: Bartzelonan «Bartzelona eredu» deitu izan diogun praktikan bi jokabide nagusitu direla. Alde batetik, espazio publikoa eraldatzeko gaitasun ikaragarria, eta, bestetik, eraldaketa hori ekimen pribatuarekin elkarlanean egiteko erabakia. Praktika horien mugak oso argi bistaratu dira Ranbletan, eta nire ustez, horregatik eskatu zuten lehendabizikoz txapelketa honetan garrantzi bera izan zezaten aurreproiektuek eta kudeaketa-eta sorkuntza-estrategiek, eredu sozioekonomiko berria bilatzeko. Badirudi, behingoz, onartu dutela hiria egitea ekintza korapilatsua dela, sakona, eta espazio publikoa ez dela bakarrik administrazioaren kontua, baizik eta kaleko bizipenek agintzen dutela, eta, beraz, ezin dela modu zurrunean finkatu eta erabaki. Zurruntasun horrek mesede egiten dio merkatuari, baina administrazioa jabetu da arazoak gainezka egiten diola, eta elkarlana behar duela, prozesu eta estrategia berriak... Hori da benetan eman den bilakaera.

Km-ZEROren apustua da metodologia berriaren bitartez espazio malgua sortzea, bertan jasotzeko eta barneratzeko

hirirako eskubide potentzial guztiak. Horrela, autokritika zorrotza eginez, kontra-eredua sortuko genuke.

A: Ranblak lirateke diozun kontra-eredu hori sortzeko lekurik aproposena?

I: Bai, guztiz. Hirian egin diren hirigintza-akats guztiak «garbitzeko» maila handiko ekintza konplexua eta begibistakoa egin beharra zegoen. Ez dakigu lortuko dugun; izan ere, 6 hilabeteko epea dugu estrategia guztiak diseinatzeko, eta beste 6 egitaritza-proiektua burutzeko, beraz, urtebetean egin behar da matxinada. Hori dela-eta, eratu genuen dagoeneko arazoa ezagutzen duten jakitun eta adituen lantaldea, denbora aurrezteko.

Kontu polita da, gainera, onartzea Ranbletako erabiltzailea ez dela bakarrik hemengoa, edonongoa dela, beraz, Km-ZEROk lurralde unibertsalari eskainiko dio lana. Gure asmoa da Ranblak gailu espaziala izan daitezen, non industria turistikoak «turista» bat jarriko duen, baina kaleak berak munduko hiritar bilakatuko duen. Turista izatetik, bidaiari izatera pasako da, bizilagunekin enpatian: prostituten eta etxegabeen errealitateaz jabetuta, antzerkiaz edo jazz kontzertu batez gozatuta... Espazioak bizidunaren izaera aldatuko du, hori baita hiriaren xedea.

A: Ranbletako bizilagunek eskertuko dute bilakaera, ezta?

I: Bai, hori da. Proiektuaren izena da «turista ugariako espazioen kudeaketa», eta jende askok galdetu digu zergatik duen titulu hori. Orain Ranbletan eskaintzen dena da «dir-dir egiten duten gauza txiki ugariaren» kontsumoa, baina eskaintza aldatuz gero, Ranblen ph-a aldatuko da, beraz, lasai, posible da izan zen espazio barneratzaile eta askotarikoa berreskuratzea. Hortik aurrera, turistak baldin badaude, euren erabakia izango da, aktibistak edo hiritarrak izatea posible izango dutelako. Guk ez dugu parte hartuko etiketen eta monumentuen jokoan.

===

Erredakzioan itzulia.